Espedientea: 01/2026

HORNIDURA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA:

1.- ERRENTAMENDU/*RENTING* ARAUBIDEAN:

- Funtzio anitzeko 2 ekipo **(fotokopiagailua–inprimagailua–eskanerra)**, zuri-beltzean eta koloretan.
- Zuri-beltzean inprimatzeko 4 ekipo indibidual.
- Zuri-beltzean eta koloretan inprimatzeko 2 ekipo indibidual.

2.- MANTENTZE-ZERBITZUA, *kontsumoen arabera; laguntza teknikoa eta kontsumigarrien eta ordezko piezen hornidura barne*

PROZEDURA IREKI SUPERSINPLIFIKATUAREN BIDEZ ADJUDIKATU BEHARREKOA (SPKL 159.6 ART.).

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK 4
1. klausula. *Kontratuaren ezaugarrien laburpena.* 4
II. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK 7
2. klausula. *Araubide juridikoa* 7
3. klausula. *Kontratuaren xedea.* 8
4. klausula. *Kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren prezioa.* 10
5. klausula. *Kontratatzailearen profila* 10
III. KAPITULUA. LIZITAZIOA 11
6. klausula. *Kontratatzeko gaitasuna eta enpresak hautatzeko irizpideak* 11
7. klausula. *Adjudikatzeko prozedura* 11
8. klausula. *Adjudikatzeko irizpide objektiboak.* 11
9. klausula. *Proposamenak aurkeztea* 11
10. klausula. *Bitarteko elektronikoak* 13
11. klausula. *Dokumentuak zuzentzea* 13
12. klausula. *Proposamenen forma eta edukia* 13
13. klausula. *Kontratazio Mahaia.* 16
14. klausula. *Proposamenak irekitzea eta GUTUN-AZAL BAKARREKO dokumentazioa aztertzea* 16
15. klausula. *Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea eta adjudikatzeko proposamena, uko egitea edo atzera egitea* 16
IV. KAPITULUA. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA 20
16. klausula. *Kontratua adjudikatzea.* 20
17. klausula. *Kontratua burutzea eta formalizatzea.* 20
V. KAPITULUA.- KONTRATUA BETEARAZTEA 21
18. klausula. *Lanak egitea* 21
19. klausula. *Iraupenaldia.* 21
20. klausula. *Kontratuko betebeharrak ez betetzeagatiko zigorrak* 21
21. klausula. *Kontratistaren erantzukizuna kalte-galerengatik* 22
22. klausula. *Aurreikusitako aldaketak.* 22
23. klausula. *Aurreikusi gabeko aldaketak* 22
24. klausula. *Kontratua betearazteko baldintza bereziak* 23
25. klausula. *Kontratua lagatzea.* 23
26. klausula. *Azpikontratazioa.* 23
VI. KAPITULUA. ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK 24
27. klausula. *Kontratistari ordaintzea* 24
28. klausula. *Prezioak berrikustea* 24
29. klausula. *Betebehar sozialak, fiskalak, lanekoak eta ingurumena babestekoak* 24
30. klausula. *Subrogazioa lan-kontratuetan.* 25
31. klausula. *Kontratua betearazi bitartean lan-baldintzei eustea.* 25
VII. KAPITULUA. KONTRATUA AZKENTZEA 26
32. klausula. *Harrera* 26
33. klausula. *Bermealdia, ezereztea eta behin betiko bermea itzultzea.* 26
34. klausula. *Kontratua suntsiaraztea.* 26
35. klausula. *Konfidentzialtasuna.* 26
36. klausula. *Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea* 27
37. klausula. *Datuen babesa* 27
I. ERANSKINA. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 29
II. ERANSKINA. KONTRATAZIO-AGIRI EUROPAR BAKARRA BETETZEKO JARRAIBIDEAK . 30
III. ERANSKINA. ENPRESA-TALDEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA 32
IV. ERANSKINA. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA ETA GAITASUN TEKNIKO EDO PROFESIONALA 33
V. ERANSKINA. KONTRATUARI BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEA 34

VI. ERANSKINA. AZPIKONTRATAZIOA eta/edo LAGAPENA 35
VII. ERANSKINA. ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA (Unitateko prezioak) 36
VIII. ERANSKINA. ONDOREN EBALUATU BEHARREKO ADJUDIKAZIO-IRIZPIDE OBJEKTIBOAK.....38
IX. ERANSKINA. KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK 41
X. ERANSKINA. ZIGORRAK 42
XI. ERANSKINA. KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK 43
XII. ERANSKINA. KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAERA 44

I. KAPITULUA. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

1. klausula. *Kontratuaren ezaugarrien laburpena.*

1. ESPEDIENTE-ZENBAKIA.	01/2026.	
2. BOTERE ADJUDIKATZAILEA.		
Erakunde kontratatzailea.	DEMA BIZKAIKO ENPLEGU ETA EKINTZAILETZA FORU AGENTZIA Fanderia kalea, 2 48901 Barakaldo (Bizkaia) IFK: G48408405	
Organo kontratugilea.	Gerentzia	
Kontratatzailearen profila.	https://www.contratacion.euskadi.eus/ https://www.dema.eus/eu/demaeu/kontratatzailearen-profila/	
Helbide elektronikoa.	contratos@dema.eus	
3. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA		
Kontratu mota.	*Mistoa: Hornidura - Zerbitzuak.*	
Prozedura mota.	*Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.).*	
Izapidetzea.	*Arrunta.*	
Eskaintzak aurkezteko modua.	*Elektronikoa.*	
Errekurtso berezia jar daiteke.	*EZ.*	
Erregulazio harmonizatuko kontratua.	*EZ.*	
Eskatutako sailkapena.	*EZ.*	
4. KONTRATUAREN DEFINIZIOA		
CPV KODEA.	*30120000-Fotopiagailuak, offset makinak eta inprimagailuak.* *50313000-Erreprografia makinak mantentzea eta konpontzea.*	
LOTETAN BANATUTA.	*EZ.*	
5. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.		
Oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe:	BEZ aplikagarria:	*Oinarrizko aurrekontua, BEZa barne:*
33.000,00 €	*6.930,00 €*	*39.930,00 €*
Prezioa zehazteko sistema: *Ikus I. eranskina.*		
6. BALIO ZENBATETSIA		
Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua (BEZik gabe).		*33.000,00 €*
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe).		*% 20*
Luzapenak (BEZik gabe).		*0,00 €*
BALIO ZENBATETSIA GUZTIRA.		***33.000,00 €***

7. ENPRESA- EDO LANBIDE-GAIKUNTZA BEHARREZKOA KONTRATUA EGITEKO.	EZ.
8. BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEA (SPKLren 76.2 art.).	EZ.
9. BITARTEKO ELEKTRONIKOAK.	**Lizitazio elektronikoa.** Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea. BAI, KPEP bidez: https:// https://contratacion.euskadi.eus. https://www.dema.eus/eu/demaeu/kontratatzailearen-profila/ Kontratazio-organoak prozedurari dagokionez egin behar dituen zuzenketa eta/edo argibide errekerimenduak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, plataforma honen bidez. Plataformak huts eginez gero, posta elektronikoa erabiliko da, eta helbide hau gaituko da: contratos@dema.eus
10. KAUDIMENA.	*Ezin da eskatu, 159.6.b) artikuluan adierazitakoaren arabera.*
11. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK.	*Ikus VIII. eranskina.*
12. KONTRATUAREN IRAUPENA.	• *Hornitutako ekipoak entregatzeko epea: gehienez **30 egun natural**, kontratua formalizatzen denetik. Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da. Lizitatzaileak bere eskaintzan adierazitako epea laburragoa bada, epe hori eskatuko da.* • *Laguntza teknikoko eta mantentze integraleko zerbitzua betearazteko epea: **60 hilabete**, ekipoak entregatzen direnetik eta harrera-akta sinatzen denetik aurrera.*
13. LUZAPENA.	*EZ.*
14. BERMEALDIA.	***60 hilabete**, kontratuaren betearazpenari dagozkionak.*

15. BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Ikus IX. eranskina.

Ingurumen baldintzak:
Adjudikaziodunak ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko sistema bat duela egiaztatu beharko du. Egiaztapen hori ingurumen kudeaketa eta auditoretzako sistema komunitarioan (EMAS) izena emanda egotearen ziurtagiriaren bidez, ISO 14001 ziurtagiriaren bidez edo beste edozein ziurtagiri normalizaturen bidez egin ahal izango da.

Beste maila bateko baldintzak:
Adjudikaziodunak egiaztatu beharko du Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemen ziurtagiria duela, datuen eta informazioaren eta hura prozesatzen duten sistemen segurtasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna egiaztatzen baititu.
Egiaztapen hori dagokion ziurtagiria aurkeztuz egin ahal izango da: ISO 27001 ziurtagiria edo beste edozein ziurtagiri normalizatu baliokide.

16. BERMEAK.	
Behin-behinekoa	*EZ.*
Behin betikoa.	*EZ.*
17. PREZIOAK BERRIKUSTEA.	*EZ.*

18. KONTRATUAN AURREIKUSITAKO ALDAKETAK.	*BAI.*
19. AZPIKONTRATAZIOA.	*EZ.*
20. KONTRATUA LAGATZEA.	*EZ.*
22. FAKTURAZIO-DATUAK.	ASOC. DE APOYO AL DESARROLLO EMPRESARIAL DEMA ENPRESA GARAPENA DE BARAKALDO IFK: G48408405 Fanderia kalea, 2,48901 – Barakaldo (Bizkaia) facturas@dema.eus

II. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

2. klausula. *Araubide juridikoa.*

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio eremuan sartzen dira DEMA-BIZKAIKO ENPLEGU ETA EKINTZAILETZA FORU AGENTZIA gisa (aurrerantzean, DEMA) industria edo merkataritza izaerarik gabeko interes orokorreko beharrak asetzen dituzten erakundeak, jardueraren zati handi bat kapital publikoarekin finantzatuta egonik eta administrazio batek kontrolatzen dituela eta, bestalde, Lege beraren 3.3.d) artikuluan ezarritako botere adjudikatzailearen kategorian sartuta daudela.

Kontratu hau pribatua da, SPKLren 26.1 b) artikuluan xedatutakoaren arabera. Aldeek berariaz bete beharko dute agiri honetan eta baldintza tekniko zehatzen agirian ezarritakoa.

26. artikuluaren lehen apartatuaren b) letran aipatutako administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzaileek egiten dituzten kontratu pribatuak, haien xedea SPKLren eremuan badago, haren hirugarren liburuaren I. tituluan xedatutakoaren arabera arautuko dira, prestaketari eta adjudikazioari dagokienez.

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko zaizkie, bai eta 319. artikuluaren lehen paragrafoan aipatzen diren arauak ere, ingurumenaren, gizartearen edo lanaren, betearazteko baldintza berezien, kontratua aldatzearen, lagatzearen eta azpikontratatzearen, kontratazioaren arrazionalizazio teknikoaren, ordainketa baldintzen eta kontratua suntsiarazteko kausaren arloan, prestazioa hasieran itundutako baldintzetan betearazteko ezintasunari dagokionez, kontratua 204. eta 205. artikuluen arabera aldatu ezin denean.

Era berean, kontratua datuen babesaren arloko araudi nazionalaren eta Europar Batasunaren araudiaren mende egongo da, eta, oro har, aplikatzekoak zaizkion Erkidegoko Zuzenbideko arauetan ezarritakoaren mende.

Agiri hau eta erantsitako gainerako dokumentuak kontratutzat hartuko dira. Agiri hau eta gainerako kontratu-agirietako edozein bat ez badatoz, agiri hau nagusituko da.

Kontratuaren klausuletako zehaztasunak, kontratu-agiriak eta hitzartutakoa betearazteko aplikatu beharreko jarraibide edo arauak ez ezagutzeak ez du adjudikazioduna horiek betetzeko betebeharretik salbuesten.

3. klausula. *Kontratuaren xedea eta beharra.*

Agiri honen **xedea** da DEMAren egoitza soziala (Fanderia kalea 2, Barakaldo, Bizkaia) hornitzeko kontratu mistoaren adjudikazioa arautzea:

1.- ERRENTAMENDU/*RENTING* ARAUBIDEAN:

- Funtzio anitzeko 2 ekipo **(fotokopiagailua–inprimagailua–eskanerra)**, zuri-beltzean eta koloretan.
- Zuri-beltzean inprimatzeko 4 ekipo indibidual.
- Zuri-beltzean eta koloretan inprimatzeko 2 ekipo indibidual.

2.- MANTENTZE-ZERBITZUA, *kontsumoen arabera; laguntza teknikoa eta kontsumigarrien eta ordezko piezen hornidura barne*

Eskatutako **gutxieneko zehaztapen teknikoak** preskripzio teknikoen agirian definitutakoak dira.

Ekipamenduari lotutako laguntza teknikoko eta mantentze integraleko zerbitzua erabileragatik (kopiak) ordainduko da, eta zerbitzurako hornitutako gailuen mantentze zuzentzailea zein prebentziozkoa egingo da, euskarri teknikoarekin eta kontsumigarriak eta eman beharreko zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren gainerako piezak hornituta. Zehazki, honako zerbitzu hauek sartzen dira:

- Beharrezko software guztia instalatzea, konfiguratzea eta eguneratzea; kontratua betearazteko baldintzetan dago zehaztua.
- Beharrezko kontsumigarriak (papera eta grapak izan ezik) eta ordezko piezak hornitzea.
- Mantentze-zerbitzua:
  - Teknikarien joan-etorria eta esku-hartzea erakundearen bulegoetan.
  - Urruneko kudeaketa.
  - Online eta telefono bidezko laguntza teknikoa.
  - Bezeroaren arretarako zentroa (webgunea, telefono bidezko arreta, posta elektronikoa).
  - Gestore komertziala, kontratuaren jarraipenaz arduratzen dena eta DEMAren eskakizunen arabera aldizkako bisitak egiteko prest egon beharko duena, kontratatutako zerbitzuen mailen jarraipena eta kontrola egiteko.
- Erabiltzaileen prestakuntza.
- Erabilitako toner kartutxoak kudeatzea.

Baldintza teknikoen agirian zehazten dira kontratuan jasotako zerbitzuak.

Kontratuari aplikatu beharreko **CPV** kodeak honako hauek izango dira:

- 30120000 - Fotokopiagailuak, offset makinak eta inprimagailuak.
- 50313000 - Erreprografiako makinak mantentzea eta konpontzea.

SPKLren 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratu honen **beharra** justifikatzen da, erakunde horrek ez baititu hornitu nahi diren baliabide edo ekipamendu teknikoak, beharrezkoak Elkartearen jarduera behar bezala garatzeko, eta, halaber, ez du ekipoen mantentze egokia egin dezakeen langile espezializaturik. Gaur egun dauden ekipoek 5 urte baino gehiago dituzte, eta erabat desfasatuta eta zaharkituta daude. Matxura izanez gero, merkatuan ez dago ordezko pieza egokirik.

Zehazki, hauek dira kontratua sinatuta ase nahi diren beharrak:

1. Erakundeari funtzio anitzeko ekipoak ematea, gorabeherak gutxitu eta horien konponbidea arintzeko.

2. Kontsumigarrien kudeaketa eta funtzio anitzeko ekipoen mantentzea hobetzea, inprimatzeko, kopiatzeko eta eskanerrerako gailuen kopurua optimizatze aldera.

3. Erakundeari hornitutako elementu guztiak funtzionamendu egoera ezin hobean mantentzea, zerbitzu etenak eta zerbitzurik eza saihesteko.

4. Egungo merkatuan erabilgarri dauden teknologia berriak aprobetxatzea, multifuntzionaltasunari eta inprimaketari dagokienez, ekipo produktiboagoak eta eraginkorragoak sartuta.

5. Aplikatu beharreko ingurumena eta segurtasuna babesteko araudia betetzea.

6. Hornitutako gailuen funtzionamenduak sortutako ingurumen hondakinak birziklatzea eta behar bezala eta eraginkortasunez suntsitzea.

Ez da egongo **loteka** lizitatzeko aukerarik: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 99.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ez da aurreikusten kontratua loteka banatzea, hornidurak unitate funtzional bat osatzen baitu ikuspegi teknikotik, eta enpresa bakar batek egin behar du, behar bezala betearazteko eta kostuak optimizatzeko.

Loteka banatzeak kontratua behar bezala betearaztea zailduko luke, hainbat kontratista desberdinek prestazioak koordinatzeko beharra ekarriko lukeelako, eta makina guztietan kalitate eta gaitasun berberak bermatu ezin izango liratekeelako, modelo eta marka bat baino gehiago batera egon baitaitezke.

4. klausula. *Kontratuaren balio zenbatetsia, Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta Kontratuaren prezioa.*

Kontratuaren balio zenbatetsia, **1. klausularen 6. apartatuan** jasotakoa, kontuan hartu da kontratu honi aplikatu beharreko lizitazio-prozedura eta egingo zaion publizitatea aukeratzeko.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **1. klausularen 5. apartatuan** adierazitakoa da, gehienez. Kalkuluan, kontratu-agirien eta indarreko legediaren arabera adjudikaziodunaren kontura doazen balorazio faktore eta gastu guztiak sartzen dira, baita edozein motatako zergak ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne**.**

Zifra horiek lizitazio tipotzat edo oinarritzat hartzen dira, eta BEHERANTZ hobetu daitezke baloratzeko.

SPKLren 301. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratuaren prezioa unitateko prezioen bidez zehazten denean, hornitu beharreko unitateen kopurua handitu ahal izango da hasieran aurreikusitakoen edo kalkulatutakoen gainean, kontratuaren prezioaren **ehuneko 10era** arte, eta ez da beharrezkoa izango aldaketa espedienterik izapidetzea.

Proposamenek Balio Erantsiaren gaineko Zerga ere adieraziko dute, partida independentean. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zerga oinarria gainditzen duten BEZik gabeko zenbatekoak baztertu egingo dira. Kontratuaren prezioa adjudikazioaren araberakoa izango da, eta inola ere ez da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino handiagoa izango.

5. klausula. *Kontratatzailearen profila.*

Kontratazio-organoaren kontratatzaile profilera sartzeko, helbide elektroniko (URL) honetara jo behar da: https://contratacion.euskadi.eus.

DEMAk egiten dituen jakinarazpen eta komunikazio guztiak Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformaren (KPEP) bidez egingo dira. Plataformak huts eginez gero, posta elektronikoa erabiliko da, eta erakunde honek gaitutako helbidea honako hau izango da: contratos@dema.eus

III. KAPITULUA. LIZITAZIOA.

6. klausula. *Kontratatzeko gaitasuna, kaudimena eta enpresak hautatzeko irizpideak.*

Kontratu hau adjudikatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek edo atzerritarrek, banaka edo aldi baterako enpresa-elkarte batean, baldin eta **jarduteko gaitasun osoa** badute, SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debeku eta bateraezintasunetan sartuta ez badaude, eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute, hala badagokio.

Pertsona juridikoen kasuan, agiri honen xede den kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera eremuaren barruan egon behar dira.

Europar Batasunekoak ez diren atzerriko enpresek, gainera, SPKLren 68. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Enpresaburuaren jarduteko gaitasuna eta kontratatzeko debekurik ez dagoela egiaztatzeko, **Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistroan (ROLECE) inskribatuko da, lizitazio-prozesuetan erredundantea den dokumentazioa bidaltzea edo izapidetzea saihesteko.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistroan edo autonomia-erkidegoko erregistro baliokidean inskribatuta egoteak egiaztatzen du, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, enpresaburuaren gaitasun baldintzak betetzen direla honako alderdi hauei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, lanbide edo enpresa gaikuntza, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa edo profesionala, sailkapena eta inskribatutako beste inguruabar batzuk, bai eta bertan jaso beharreko kontratatzeko debekuak dauden ala ez.

Lizitaziorako onartuko dira lizitazioaren datan dagokion erregistroan **inskribatzeko eskaera** egin duten lizitatzaileak, nahiz eta eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean erregistro horretan inskribatuta egon ez. Kasu horretan, dagokion erregistroak emandako inskripzio eskaeraren hartu-agiria eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko eskakizunik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.

- Lizitatzailea adjudikaziodun gisa proposatuz gero, jarduteko gaitasuna justifikatu beharko du, **agiri honen 15. klausulan** adierazitakoaren arabera.
- 159.6.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, **lizitatzaileak salbuetsita egongo dira ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzetik.**

7. klausula. *Adjudikatzeko prozedura.*

Kontratua **prozedura ireki supersinplifikatua**ren bidez adjudikatuko da, **VIII. ERANSKINEAN** ezarritakoaren arabera, SPKLren 131.2, 145.1 eta 159.6 artikuluak aplikatuz, lege horretan ezarritako baldintzen arabera, prezio/kalitate harreman onenean oinarrituta.

8. klausula. *Adjudikatzeko irizpide objektiboak.*

Kontratua adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpide objektiboak **VIII. ERANSKINEAN** ezarritakoak dira, dagokien haztapenarekin edo, bestela, garrantzi handienetik txikienera.

9. klausula. *Proposamenak aurkeztea.*

Proposamenak, nahitaezko dokumentazioarekin batera, **HAMAR EGUN BALIODUNEKO** epean aurkeztuko dira, kontratuaren lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (SPKLren 159.6.a) art.), **modu elektronikoan** soilik,

Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformaren bidez, hautagaitzen eta erakunde lizitatzaileen eskura.

Horregatik, lizitazio honetan parte hartzeko, garrantzitsua da interesa duten lizitatzaileak, hala ez badaude, Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman erregistratzea.

Lizitatzaileek modu elektronikoan prestatu eta aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, nahitaez, KPEP bidez (https://www.contratacion.euskadi.eus).

Interesdunen proposamenek baldintza agiri hauetan aurreikusitakoa bete beharko dute, eta horiek aurkezteak baldintza agiri osoaren edukia eta preskripzio teknikoen agiria baldintzarik gabe onartzea ekarriko du, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea ere Estatuko edo EAEko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistroan (ROLECE) edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrendetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, lizitatzaileak proposamena bakarka egin badu, ezin izango du proposamenik sinatu beste batzuekin aldi baterako elkarte gisa, ez eta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez dira onartuko berak izenpetutako proposamen guztiak.

Lizitazio-prozedura honetan ez dira onartuko deskribatutako bitartekoen bidez aurkezten ez diren eskaintzak.

Gutun-azalen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, tresnak gutun-azal horiek zifratuko ditu bidalketan.

Aurkezpena egin ondoren, tresnak bidalketaren egiaztagiria emango dio erakunde lizitatzaileari, biltegiratu eta inprimatu daitekeena, denbora zigiluarekin.

Ezarritako epean eskaintzak aurkeztea ezinezkoa bada lizitatzaileari egotz ezin dakiokeen arrazoiren batengatik, lehia printzipioa eta lizitaziorako irispidea bermatzeko, kontratazio-organoak aukera izango du proposamenak aurkezteko beste bitarteko batzuk gaitzeko edo proposamenak aurkezteko epea luzatzeko. Hala ere, lizitatzaileen arteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera, proposamenak aurkeztea ahalbidetzen duten sistema elektronikoetan arazo teknikoak antzemanez gero, ezinbesteko baldintza izango da egiaztatzea arazoa ezin zaiola lizitatzaileari berari egotzi, baizik eta Kontratazio Publikoa Euskadin Plataformako (KPEP) akats teknikoei, baldin eta horiek ezinezkoa egin badute eskaintza epean aurkeztea, eta lizitatzaileak bere eskaintzaren aurkezpena prestatu beharko du, egon daitezkeen gorabeherak detektatu eta konpondu ahal izateko behar den denbora tartearekin.

Plataformaren akats informatiko orokorra gertatuz gero, egintza eten egingo da zuzendu arte, eta hori behar bezala jakinaraziko da.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, eskaintza bateko edozein dokumentu ezin bada behar bezala ikusi, lizitatzaileak okerreko fitxategian dagoen dokumentua aurkeztu ahal izango du formatu digitalean, egoera hori jakinarazten zaionetik gehienez 24 orduko epean. Gerora aurkeztutako dokumentuak ezin izango du inolako aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoaren aldean. Kontratazio-organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

“Eskaintzak prestatzeko eta aurkezteko tresnan” sartu behar diren eta lizitatzaileek sinatu behar dituzten dokumentuak elektronikoki sinatu beharko dira tresnaren beraren barruan.

Lizitatzaileek **baldintza agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria** eskatu ahal izango dute lizitazioaren iragarkian eskaintzak jasotzeko ezarritako azken eguna baino **5 lanegun lehenago**. Informazio hori **proposamenak aurkezteko epea amaitu baino 3 egun baliodun lehenago** emango da, gutxienez.

10. klausula. *Bitarteko elektronikoak.*

Proposamenak aurkezteko baliabide eta euskarri elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea nahitaezkoa izango da **1. klausularen 9. apartatuan** hala adierazten denean.

Apartatu berean atari informatikoa adierazten da, non, hala badagokio, bitarteko elektronikoen bidez lizitatzeko eta ohar-taula elektronikora sartzeko behar den informazioa eta programak eskura daitezkeen.

11. klausula. *Dokumentuak zuzentzea.*

Parte hartzeko baldintzak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpenen aurkezpena zuzendu egingo dute lizitatzaileek, kontratazio-organoaren edo kontratazio-mahaiaren mendeko zerbitzuek hala eskatuta, aurkeztu ez denean edo aurkeztutakoa behar bezala beteta ez dagoenean.

Era berean, adjudikaziodun gisa proposatutako pertsonak kontratua adjudikatu aurretik eskatu zaizkion parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak ez aurkeztea edo osorik ez aurkeztea zuzen dezake.

Bi kasuetan, lizitatzaileari **hiru egun balioduneko** epea emango zaio, zuzentzeko eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Eskatutakoa epe barruan zuzentzen ez bada, kontratazio-organoak edo -mahaiak ulertuko du lizitatzaileak uko egiten diola bere eskaintzari.

12. klausula. *Proposamenen forma eta edukia.*

Adierazitako epearen barruan eta adierazitako moduan, lizitatzaileek erantzukizunpeko adierazpenarekin batera aurkeztu beharko dute proposamena, erantsitako ereduari jarraituz, eta **gutun-azal (fitxategi elektroniko) bakarrean**.

Lizitatzaileek lizitazioan aurkeztutako dokumentazioa edo informazioa **konfidentziala** dela adierazi ahal izango dute, sekretu tekniko edo komertzialei, eskaintzaren alderdi konfidentzialei eta beste edozein informaziori eragiten dielako, baldin eta informazio horren edukia lehia faltsutzeko erabil badaiteke, dela lizitazio-prozedura honetan, dela ondorengo beste batzuetan. Izaera konfidentziala ezin izango da proposamenaren eduki osora hedatu, eta hedapen mugatua duten dokumentuei soilik eragin ahal izango die, eta, inola ere ez publikoki eskuragarri dauden dokumentuei.

"Dokumentazio administratiboa eta proposamena" izeneko **FITXATEGI BAKARRA**REN barruan honako dokumentazio hau sartuko da:

1.- Parte hartzeko eskaera eta erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskina), **II. eranskinean** adierazitako ereduaren arabera beteta eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta.
Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio kontratatzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezala. Hala ere, kontratazio-organoak komenigarritzat jotzen badu, prozeduraren amaiera ona bermatze aldera, adjudikazio-proposamena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek kontratuaren adjudikaziodun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela.

2.- Estatuko edo EAEko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistroan (ROLECE) edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrendetan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

Lizitatzailea adjudikaziodun gisa proposatzen bada, eta aldaketarik badago eta inskribatuta

ez badaude, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da, inskribatuta ez dauden datuetarako bezala, 15. klausulan adierazitako bitartekoen bidez.

Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean inskripziorik izan ezean, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion erregistroak emandako **inskripzio eskaera jaso izanaren adierazpena** eta **nahitaezko dokumentazioa aurkeztu izanaren eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.**

Erregistroan inskribatu gabe dauden kasu horietarako, erakundea adjudikaziodun gisa proposatzen bada, jarduteko gaitasuna eta kontratatzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko eskatuko zaio, 15. klausulan adierazitako bitartekoen bidez.

3.- Aldi baterako enpresa-elkarteak.

Adjudikazioa egin aurreko fasean aldi baterako elkartea eraginkorra izan dadin DEMAren aurrean, klausula honetan eskatzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzte enpresa guztiek, baita konpromiso solidarioaren idazki bat ere. Bertan, honako hauek adieraziko dira: elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak; horietako bakoitzaren parte-hartzea; adjudikaziodun izanez gero, aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzea; eta elkarteko ordezkari edo ahaldun bat izendatzea, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar adina ahalorde dituena. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa bakoitzeko ordezkariek sinatu beharko dute. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

4.- Talde bereko enpresak.

Talde bereko enpresek, hau da, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean daudenek eta adjudikaziora banaka aurkezteko proposamen desberdinak aurkezten dituztenek, baldintza hori jasotzen duen adierazpena aurkeztu beharko dute**, III. ERANSKINA**ren arabera.

5.- Atzerriko enpresek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak.
Atzerriko enpresek, lehen aipatutako dokumentazioaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.

Espainiarrak ez diren enpresa guztiek ekarpen hauek egin behar dituzte:

- Kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, **Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla jakinarazteko adierazpena**, eta kasua suertatuko balitz lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo lioketela jakinaraziko dute bertan (SPKLren 140.1.f artikulua).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresek honako ekarpen hauek egin beharko dituzte:

- Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duen **txostena**, enpresaren egoitzako Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emana. Txosten horretan, enpresak aldez aurretik egiaztatuta, adierazi beharko da tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoan inskribatuta daudela, edo, bestela, kontratuaren xedearen

eremuko jardueren eremuan tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten dutela.

- SPKLren 68. artikuluak aipatzen duen **elkarrekikotasun txostena.** Erregulazio harmonizatuko kontratuetan ez da elkarrekikotasunari buruzko txostenik egingo Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei dagokienez. 6.- Proposamen Ekonomikoa.

Gutun-azal horretan sartu beharko dira, halaber, ESKAINTZA EKONOMIKOA eta lizitatzaileak eskainitako proposamenari buruzko gainerako dokumentuak, formulak aplikatuz automatikoki ebaluatu daitezkeelako ondoren ebaluaziokotzat jotzen direnak**.**

ESKAINTZA EKONOMIKOA plegu honen **VII. ERANSKIN** gisa eransten den ereduaren arabera egingo da, eta haren zati banaezina izango da. Kontratugileen eskaintzek Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa adierazi beharko dute partida independente gisa.

Ez dira onartuko DEMAk eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten eskaintzak. Proposamenen bat ez badator bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena eragiten badu edo lizitatzaileak onartzen badu hori bideraezina egiten duen errore edo funtsik eza duela, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du, eta ez da nahikoa arrazoi izango ereduko hitz batzuk atzera botatzeko edo ez botatzeko, horrek bere zentzua aldatzen ez badu.

Honako ziurtagiri eta dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Batasunaren Ingurumen Kudeaketa eta Ikuskaritzako Sisteman (EMAS) izena emanda egotearen ziurtagiria, ISO 14001 ziurtagiria edo beste edozein ziurtagiri normalizatu.
- ziurtagiria: ISO 27001 ziurtagiria edo beste edozein ziurtagiri normalizatu baliokide.
- informazio-liburuxkak eta/edo eskainitako ekipoen ezaugarrien zerrenda zehatza jasotzen duten fitxa teknikoak, kontratazio-mahaiak aukera izan dezan eskaintzak Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Erantzukizunpeko adierazpenen egiazkotasuna egiaztatzea.

Kontratazio-organoaren edo kontratazio-mahaiaren zerbitzuek edozein unetan eskatu ahal izango dute agiri bidez egiaztatzea lizitatzaileek erantzukizunez adierazi dituzten baldintzak betetzen dituztela.

Lizitatzaileak emandako epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, gehienez ere **hiru egun balioduneko epean,** eskakizuna bidaltzen denetik zenbatzen hasita. Eskakizuna adierazitako epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela eta prozeduratik kanpo utziko dela ulertuko da.

13. klausula. *Kontratazio Mahaia.*

Kontratazio-mahaiak izango du eskaintzak baloratzeko eta administrazio dokumentazioa kalifikatzeko eskumena. Kontratuaren osaera baldintza agiri honen **XII. eranskinean** jaso ahal izango da. Eranskin hori kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko da lizitazio-iragarkia argitaratzean, edo, bestela, eraketa baino lehen argitaratuko da, profil horretan berariazko iragarki

baten bidez.

14. klausula. *Proposamenak irekitzea eta FITXATEGI BAKARREKO dokumentazioa aztertzea.*

Eskaintzak aurkezteko epea amaituta, kontratazio-mahaiak lizitatzaileek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa irekiko du, eta klausula horretan adierazitako dokumentuak, adierazpenak eta erantzukizunpeko adierazpenak jasota daudela egiaztatuko da.

Eskaintzak automatikoki baloratuko ditu kontratazio-organoak, gailu informatikoen bidez. Xedapen horrek bermatzen du proposamenak ez direla irekiko aurkezteko epea amaitu arte, eta, beraz, ez dela proposamen horiek irekitzeko ekitaldi publikorik egingo, SPKLren 159.6.d) artikuluan adierazitakoaren arabera.

Zuzendu daitezkeen akatsak antzemanez gero, 11. klausulan adierazitakoaren arabera, **hiru egun balioduneko epea** emango da, eskakizuna jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, lizitatzaileak zuzendu edo konpon ditzan, edo argibideak edo dokumentu osagarriak aurkez ditzan.

Baldintza-agirietan eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten proposamenak ez dira baloratuko, eta prozeduratik kanpo geratuko dira. Ondoren, eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

Aurreko apartatuen arabera egindako guztia aktetan jasoko da, eta akta horietan prozeduraren emaitza eta gorabeherak jasoko dira.

Eskaintzak kalifikatzeko, onartzeko edo baztertzeko egintzen emaitza kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eragindako lizitatzaileei, dagokionaren arabera, jakinarazi edo jakinarazteari kalterik egin gabe.

Lizitatzaile bat baztertzeko egintza lizitatzaileari jakinaraziko zaio, erabaki horren aurka jar daitezkeen errekurtsoak adierazita.

Neurriz kanpokotzat edo nabarmentzat jo daitekeen proposamenen bat identifikatuz gero, VIII. eranskinean adierazitakoaren arabera, SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako izapidetzea egingo da.

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, VIII. eranskinean adierazitakoaren arabera jokatuko da, eta SPKLren 147. artikuluan xedatutakoa beteko da.

15. klausula. *Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzea eta adjudikatzeko proposamena, uko egitea edo atzera egitea.*

Kontratazio-organoak, dagozkion txosten teknikoen arabera, eskaintzarik onenaren berri duenean, egiaztagiriak aurkezteko eskatuko dio interesdunari. Dokumentazio hori **7 egun balioduneko epean** aurkeztu beharko da, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Dokumentazio hori justifikatutzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistroan edo estatukoan (ROLECE) inskribatuta egotearekin; baldin eta informazio hori erregistro horretan inskribatuta badago, lizitatzaileak, klausula honetan eskatzen den dokumentazioaren artetik, ziurtagiri horretan agertzen ez den dokumentazioa BAKARRIK aurkeztu beharko du.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

1.- Jarduteko gaitasuna

1.1.- Enpresa pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan inskribatua, aplikatzekoa zaion merkataritza legeriaren arabera betekizun hori eska badaiteke. Hala ez bada, eratze eskritura edo agiria, estatutuak edo sortze egintza, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituztenak eta, hala badagokio, dagokion

erregistro ofizialean inskribatuta daudenak. Dokumentu horiek lizitatzailearen araubide juridiko zehatza jaso beharko dute proposamena aurkezteko unean.

1.2.- Enpresaren identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

1.3.- Enpresaburu indibiduala bada, NANaren kopia edo, hala badagokio, erregelamenduz ordezkatzen duena.

1.4.- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatuetako enpresen kasuan edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu dutenen kasuan, jarduteko gaitasuna erregistro profesional edo komertzial batean inskribatuz egiaztatuko da, dagokion estatuko legeriak baldintza hori eskatzen duenean.

Sektore publikoarekin kontratatzeko gaitasuna izango dute Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa ez espainiarrek, baldin eta, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera, dena delako prestazioa emateko gaituta badaude. Enpresa horiek kokatuta dauden estatuko legediak kasuan kasuko prestazioa eman ahal izateko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

1.5.- Aurreko paragrafoan aipatu ez diren atzerriko enpresen kasuan, enpresaren helbidearen tokiko Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren edo Espainiako Kontsuletxeko Bulegoaren txostena. Txosten horretan, enpresak aldez aurretik egiaztatuta, adierazi beharko da tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoan inskribatuta dagoela, edo, halakorik ezean, kontratuaren xedeak hartzen dituen jardueren eremuan tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten duela.

Enpresa horiek egiaztatu beharko dute Espainian sukurtsala irekita dutela, beren eragiketetarako ahaldunak edo ordezkariak izendatuta dituztela eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta daudela.

2.- Ordezkaritza.

Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek edo pertsona juridiko bat ordezkatzen dutenek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

2.1.- Bere ordezkaritza egiaztatzeko ahalmena, kontratazio-organoaren zerbitzuek berrikusi eta kontratatzeko nahikotzat jo beharrekoa. Ordezkaritzaren egiaztagiriak ahalmenen eskuordetza iraunkorra badu, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du.

2.2.- Ahalordea edo ordezkaritza eman zaion pertsonaren NANa.

3.- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

3.1.- Zerga-betebeharrak:

a) **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emana izatea** kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, betiere zerga horri lotutako jarduerak egiten baditu, uneko ekitaldiari dagokion proposamena edo azken ordainagiria aurkezteko datan egiten dituenekin lotuta, eta zerga horren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpen batekin osatuta.

Zergatik salbuetsita dauden subjektu pasiboek salbuespenaren arrazoia adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginak, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 82.1 artikuluaren e) eta f) letretan ezarritako salbuespenen batean egonez gero,

Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren salbuespena emateko berariazko ebazpena ere aurkeztu beharko dute.

Aldi baterako enpresa elkarteek eta batasunek zergan alta emanda daudela egiaztatu beharko dute, zerga osatzen duten enpresei dagokien tributazioari kalterik egin gabe.

b) Foru Ogasunak edo Zerga Agentziak emandako aldeko ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, HAKLEOren 13. artikuluan adierazitakoaren arabera.

3.2.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak:

Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako aldeko ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, HAKLEOren 14. artikuluan adierazitakoaren arabera.

4.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala.

SPKLren 159.6.b) artikuluan adierazitakoaren arabera, lizitatzaileak **salbuetsita** egongo dira **ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala** egiaztatzetik.

5.- Atzerriko enpresen jurisdikzioa.

Kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, atzerriko enpresek Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egin beharko diote.

6.- Sektore Publikoko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistro Ofiziala.

SPKLren 96. artikuluan xedatutakoaren arabera, Sektore Publikoko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistro Ofizialean (ROLECSP) inskribatuta egotearen ziurtagiriak salbuetsi egingo ditu indarreko ziurtagiriarekin inskribatutako lizitatzaileak kontratazio deialdietan agertzen diren datuei dagokien dokumentazioa aurkeztetik, zehazki, eta kontrakorik frogatu ezean, enpresaren gaitasun baldintzei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, enpresa- edo lanbide-gaikuntza, ekonomia-eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala, sailkapena eta inskribatutako gainerako inguruabarrak, eta, orobat, kontratatzeko eta erregistroan jaso beharreko debekuren batek eragiten ote dion.

Erkidego mailako Lizitatzaileen Erregistroan (EAE) inskribatzeak inguruabar berberak egiaztatuko ditu kontratazioari dagokionez.

Izena emateko eskaera eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen egin beharko da.

Hala ere, lizitatzaileak klausula honetan eskatzen den dokumentazioaren artetik, ziurtagiri horretan agertzen ez den dokumentazioa aurkeztu beharko du.

7.- Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak kontratatzea.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonak kontratatzeko konpromisoa hartu bazuen, egoera hori egiaztatzen duten gizarte zerbitzu publiko eskudunen txostenak, lan-kontratuak eta Gizarte Segurantzako kotizazio dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Kontratazio-mahaiak, hala dagokionean, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du, eta, zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak ikusten baditu, interesdunari jakinaraziko dio posta elektronikoaren bidez, eta gehienez ere hiru laneguneko epea emango zaio lizitatzaileak zuzendu edo konpon ditzan, edo argibideak edo dokumentu osagarriak aurkez ditzan, 11. klausulan

adierazitakoaren arabera.

Lizitatzaileak eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez badu, zuzentzen ez badu, hala badagokio, edo aurkeztutako dokumentazioa aztertuta agiri honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituela egiaztatzen bada, eskaintza erretiratu duela eta kontratua bere alde adjudikatzea eragotzi duela ulertuko da, eta, hala badagokio, SPKLren 71.2 a) artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuaren kausa izango da. Kasu horietan, kontratazio-mahaiak hurrengo lizitatzailearen aldeko adjudikazioa proposatuko dio kontratazio-organoari, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, kontratatzeko gaitasuna egiaztatu ondoren, horretarako ezarritako epean dagokion dokumentazioa aurkeztuta.

Ondoren, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari bidaliko dizkio eskaintzak, egindako txostenekin batera, hala badagokio, akta eta egokitzat jotzen duen proposamena, betiere **VIII. ERANSKINEAN** adierazitako irizpideen haztapena barne.

Adjudikazioa egin aurretik, kontratazio-organoak kontratua egiteari uko egiten badio edo prozeduran atzera egiten badu, ez ditu lizitatzaileak konpentsatu beharko egindako zinezko gastuengatik, aldez aurretik eskatuta eta balorazio ekonomikoa behar bezala justifikatuta, **36. klausulan** ezarritakoaren arabera.

8.- Erantzukizun Zibileko asegurua (600.000 €).

IV. KAPITULUA. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA

16. klausula. *Kontratua adjudikatzea.*

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileari adjudikatuko dio kontratua, **VIII. ERANSKINEAN** ezarritako irizpide objektiboak aplikatuz, edo lizitazioa eman gabe utziko du adjudikazio-irizpide objektiboen arabera onargarria den proposamenik ez dagoenean.

Enpresa adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkartea bada, nahitaez egiaztatu beharko du enpresa eskritura publikoan eratu dela, bai eta elkarte horri adjudikatutako IFZ ere. Nolanahi ere, elkartearen iraupena bat etorriko da kontratuaren iraupenarekin, harik eta azkendu arte.

Kontratua **gehienez ere bi hilabeteko epean adjudikatuko da**, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, hargatik eragotzi gabe SPKLren 119.2 artikuluan presakotzat jotako espedienteetarako ezarritakoa. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da eskaintzetan balio nabarmenak edo neurriz kanpokoak daudela ikusten bada.

Behin kontratua adjudikatuta eta errekurtsoak aurkezteko epeak igarota, aurkeztu badira, proposamenekin batera doazen agiriak interesdunen eskura geratuko dira. Adjudikazioaren berri eman eta hurrengo hiru hilabeteetan ez badute dokumentazioa erretiratzen, DEMAk ez du dokumentazio hori gordetzen jarraitzeko betebeharrik izango, behin-behineko bermea osatzen duten dokumentuak izan ezik, hala badagokio, horiek gorde egingo baitira interesdunei entregatzeko.

17. klausula. *Kontratua burutzea, formalizatzea eta kontratuaren publikotasuna.*

Kontratua formalizatzen denean burutzen da. Inola ere ezin izango da kontratua betearazten hasi aldez aurretik formalizatu gabe. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek gehienez ere **15 egun balioduneko epea** emango diote adjudikaziodunari kontratua formalizatzeko, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. ABEE bat bada, haren ordezkariak eraketaren eskritura publikoa, adjudikatutako IFZ eta behar besteko ahalordea duen ordezkariaren izendapena aurkeztu beharko dizkio kontratazio-organoari.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean formalizatu ez bada, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenaren arabera, eskatutako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztu ondoren. Kontratua adierazitako epean formalizatzen ez bada, adjudikaziodunari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, SPKLren 71.2 b) artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuaren kausa izango da.

Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio dokumentuan formalizatuko da. Ezin izango da inola ere adjudikazioaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik sartu.

Era berean, aldeek hala erabakitzen badute, kontratua formalizatzeko, kontratistak adjudikatzeko akordioa onartzen duela sinatu ahal izango du, SPKLren 159.6.g) artikuluan adierazitakoaren arabera.

Kontratuen formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Aurkeztutako eskaintzen zerrenda eta horien balorazioari buruzko dokumentazioa modu irekian eskuratu ahal izango dira kontratatzailearen profilean, kontratuaren adjudikazioa jakinarazten den unetik, erakunde lizitatzaileek konfidentzialtzat aitortutako dokumentazioa izan ezik.

V. KAPITULUA. KONTRATUA BETEARAZTEA

18. klausula. *Lanak egitea.*

Kontratua betearazteko, zorrotz bete beharko dira agiri honetan eta kontratazio-organoak onartutako Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako klausulak, eta kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak kontratistari interpretazio teknikoa emateko ematen dizkion jarraibideak.

Kontratistak bere gain hartuko du kontratua betearazteko arriskua, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango kontratua betearaztearen ondorioz izandako galera edo kalteengatik.

19. klausula. *Iraupena, luzapenak, entregatzeko epea eta entregatzeko lekua.*

19.1. Iraupena eta luzapenak.

Kontratua betearazteko epea kontratuaren ezaugarriei buruzko **1. klausularen 12. apartatuan** agertzen dena izango da. Epe hori kontratua formalizatzen denetik edo kontratu-agirian ezarritako egunetik hasiko da kontatzen.

Kontratazio-organoak ezin izango du kontratua luzatu.

19.2. Entregatzeko epea eta entregatzeko lekua.

Ekipoak entregatu eta ekipamendua jasotzeko akta sinatu ondoren hasiko da kontratua.

Ekipoen entrega ezin izango da 30 egun naturaletik gorakoa izan kontratua formalizatzen denetik, eta epe hori luzatu egingo da soilik ezinbesteko arrazoiengatik eta DEMAk onartuz gero. Epearen azken eguna egun baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da. Lizitatzaileak bere eskaintzan eskatutako epea laburragoa bada, epe hori eskatuko da.

Adjudikaziodunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango hornitu beharreko ondasunetan DEMAri entregatu aurretik izandako galera, matxura edo kalteengatik.

Entrega egindakotzat joko da hornigaiak benetan jaso direnean, erakunde kontratatzailearekin bat etorriz, eta ekipamendua jaso izanaren akta sinatzen denean. Hornigaiak hitzartutako lekura eramateko eta garraiatzeko gastuak adjudikaziodunaren kontura izango dira, baita instalatzeko eta martxan jartzeko gastuak ere.

Entregatzeko lekua: DEMAren administrazio bulegoak (Fanderia kalea 2, 48901 Barakaldo, Bizkaia).

20. klausula. *Kontratu-betebeharrak ez betetzeagatiko zigorrak.*

Adjudikaziodunak kontratua betearazteko epea eta DEMAk ezarritako epe partzialak bete beharko ditu. Ezarritako epea gainditzen bada edo epe partzialak kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez badira, SPKLren 193. eta 195. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa edo epe partzialak betetzen berandutu bada, DEMAk kontratua suntsiaraztea edo zigorrak ezartzea aukeratu ahal izango du, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, **X. ERANSKINAREN** arabera.

Kontratistak kontratuan definitutako prestazioen betearazpen partziala betetzen ez badu, DEMAk kontratua suntsiaraztea edo **X. ERANSKINEAN** zehazten diren zigorrak ezartzea aukeratu ahal izango du.

Kontratua behar bezala betetzen ez bada, edo kontratua betearazteko behar diren giza baliabideak eta baliabide material nahikoak edo baldintza bereziak erabiltzeko edo atxikitzeko

konpromisoa betetzen ez bada, **X. ERANSKINEAN** adierazitako zigorrak ezarri ahal izango dizkio DEMAk kontratistari, SPKLren 192.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zigorrak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du salbuesten kontratistari egotz dakiokeen atzerapenaren ondorioz DEMAk eragindako kalte-galeren kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izatea.

21. klausula. *Kontratistaren erantzukizuna kalte-galerengatik.*

Kontratista izango da kontratua betearazteko behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien zuzeneko eta zeharkako kalte-galera guztien erantzulea. Eragindako kalte-galerak DEMAk emandako agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio badira, DEMA izango da erantzulea, legeetan adierazitako mugen barruan.

22. klausula. *Aurreikusitako aldaketak.*

Behin kontratua burututa, kontratazio-organoak interes publikoko arrazoiengatik bakarrik sartu ahal izango ditu aldaketak kontratuan, baldin eta hala aurreikusten bada kontratuaren ezaugarriei buruzko **1. klausularen 18. apartatuan** edo SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritako kasuetan eta mugekin.

Interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango dira administrazio-kontratuak, SPKLren 203. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

Kontratua honako kasu hauetan bakarrik aldatu ahal izango da indarrean dagoen bitartean:

a) Administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan hala aurreikusi bada, hasierako prezioaren ehuneko hogei aldatu ahal izango da gehienez, 204. artikuluan ezarritako formari, edukiari eta baldintzei jarraikiz.

Nolanahi ere, aldaketak ezin izango du ekarri kontratuan aurreikusi ez den unitateko beste preziorik ezartzea.

b) Salbuespen gisa, administrazio-klausula partikularren agiri honen karatulan aurreikusita ez dagoen aldaketaren bat egin behar denean, betiere 205. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira, eta SPKLren 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharko dira.

Prezioa egikaritze-unitateen bidez zehazten den kasuetan, ez dira aldaketatzat hartuko prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateen aldean benetan gauzatutako unitateen kopuruan soilik gertatzen diren aldaketak, eta horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere gastuaren igoera kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa ez bada.

23. klausula. *Aurreikusi gabeko aldaketak.*

Apartatuan aurreikusitakoez bestelako aldaketak soilik interes publikoko arrazoiengatik egin ahal izango dira, SPKLren 205. artikuluan tasatutako kasuren bat edo batzuk daudela behar bezala justifikatzen denean.

Aldaketa horiek nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta, bakarka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen ez duen aldaketa badakarte, BEZik gabe. Zenbatekoa dela eta, kontratistak aldaketa egitea nahitaezkoa ez denean, aldaketa horrek kontratistaren esanbidezko adostasuna eskatuko du.

24. klausula. *Kontratua betearazteko baldintza bereziak.*

Betearazteko baldintza bereziak **IX. eranskinean** deskribatuko dira, eta ez betetzeak

bertan ezartzen diren ondorioak izango ditu. Era berean, **X. eranskinean** baldintza horiek ez betetzeagatiko zigorrak aurreikusi ahal izango dira.

25. klausula. *Kontratua lagatzea.*

Kontratuaren ezaugarriei buruzko **1. klausularen 20. apartatuan** hala ezarri denean soilik eta **VI. ERANSKINEAN** ezartzen diren baldintzen arabera, kontratu honetatik eratorritako eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikaziodunak, betiere SPKLren 214. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

26. klausula. *Azpikontratazioa.*

Kontratuaren ezaugarriei buruzko **1. klausularen 19. apartatuan** hala aurreikusita badago, kontratistak prestazioaren zati bat egitea hitzartu ahal izango du, **VI. eranskinean** ezarritako betekizunekin eta irismenarekin. Kontratistak azpikontratuak egiteko, SPKLren 215. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

Kontratistak azpikontratuak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da kontratazio-organoari **aldez aurretik eta idatziz jakinaraztea azpikontratuak egiteko asmoa duela,** azpikontratistak azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia betearazteko duen gaitasuna justifikatzen duen dokumentazioarekin batera, eta azpikontratistaren erantzukizunpeko adierazpen bat, DEMArekin kontratatzeko debekurik ez duela adierazteko.

Nolanahi ere, kontratistak bere gain hartuko du kontratua betearazteko erantzukizun osoa DEMAren aurrean. Azpikontratistek ez dute, inola ere, zuzeneko akziorik izango DEMAren aurrean, kontratu nagusia eta azpikontratuak betearaztearen ondorioz kontratistak haiekin hartutako betebeharrengatik.

VI. KAPITULUA. ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

27. klausula. *Kontratistari ordaintzea.*

Kontratistari honela ordainduko zaio:

1. **Ekipoen errentamendua/*rentinga*:**

   Kontratistak hilero helaraziko du faktura, ekipo guztien errentamendu/*rentinga*gatiko BEZa barne, DEMAren egoitzan entregatu eta instalatu ondoren. Kontzeptu honetan sartuta egongo dira berariazko klausula administratiboen plegu honen 3. klausulan jasotako kontzeptu guztiak.

2. **Zuri-beltzeko orrialdeen zinezko kontsumoaren zenbatekoa eta koloretako orrialdeen zenbatekoa.**

   Zinezko kontsumoen ordainketa hilero egingo da, hura egin ondoren, behar bezala osatutako fakturak aurkeztu ondoren. Fakturatutako aldian egindako kopiak, kopia kopuruaren araberako prezio unitarioa, BEZik gabeko zenbateko osoa, zergaren zenbatekoa eta faktura osoa adierazi beharko dira fakturan.

   Kontratistak hilero fakturatu beharko du, fotokopiagailuka bereizita, bakoitzean egindako kopiak zehaztuta (unitateko prezioa kopia kopuruaren arabera), eta BEZik gabeko zenbatekoak eta zergaren zenbatekoa bereizita banakatuta.

Fakturek kontratuaren ezaugarriei buruzko **1. klausulako 22. apartatuan** bildutako datuak jaso beharko dituzte, bai eta fakturazio-araudian ezarritako baldintzak bete ere.

Kontratistak formatu digitalean helarazi beharko dizkio fakturak DEMAri, posta elektronikoz, prestazioa eman eta 30 eguneko epean.

Ordainketa banku-helbideratzearen bidez egingo da, eta erakunde adjudikaziodunak bere finantza erakundean izapidetu beharko du.

28. klausula. *Prezioak berrikustea.*

SPKLren 103. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio harmonizatukoak ez diren eta 19. artikuluaren 2. apartatuan aipatzen diren kontratuetan izan ezik, **ezingo da egin kontratuetako prezioei buruzko aldizkako berrikuspenik aurrez zehaztu ez denik, ez eta aldizkakoa ez denik ere.** Sektore publikoko kontratuak berrikusteko araubidea Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 7. artikulutik 10. artikulura bitartean dago aurreikusita.

Berrikuspena bidezkoa bada, hala adieraziko da kontratuaren ezaugarriei buruzko **1. klausularen 17. apartatuan**, eta formula aplikagarria jasoko da.

29. klausula. *Betebehar sozialak, fiskalak, lanekoak eta ingurumena babestekoak.*

Enpresa adjudikaziodunak bere betebeharrei erantzuteko kontratatu behar dituen langileak haren mende egongo dira soil-soilik, eta kontratua azkentzean ezin izango dira inola ere finkatu organo kontratatzaileko langile gisa lan egin duten pertsonak.

Kontratistak nahitaez bete behar ditu indarrean dauden xedapenak, bai indarrean dagoen araudian, bai kontratazio hau arautzen duten agirietan, zergen, lanaren, gizarte segurantzaren, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzearen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumena babestearen arloan.

30. klausula. *Subrogazioa lan-kontratuetan.*

Subrogazioa legez bidezkoa den kasuetan, dagokion hitzarmen kolektiboan edo

eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordioan xedatutakoa beteko da. Kontratistak behartuta egongo dira kontratua betearazten den bitartean indarrean dagoen langile taldeari buruzko informazioa eguneratuta edukitzera, eskatzen zaionean kontratazio-organoaren esku jartzeko.

Klausula honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, plegu honen **X. eranskinean** adierazitako zigorrak ezarriko dira.

31. klausula. *Kontratua betearazi bitartean lan-baldintzei eustea.*

Enpresa adjudikaziodunak bermatu beharko die kontratua betearaztera atxikitako langileei, indarraldi osoan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak ezartzen dituen lan-baldintzak zorrotz aplikatzen eta mantentzen direla.

Kontratistak dagokion soldata ordaindu beharko die bere langileei, eta soldata horren zenbatekoa eta modalitateak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoak izango dira, eta baldintza horiei eutsi ere egin beharko die, kontratua betearazten den bitartean eta egon daitezkeen luzapenetan. Konpromiso bera eskatuko zaie enpresa azpikontratistei, eta kontratista nagusiaren erantzukizuna izango da hori betetzen dela ziurtatzea erakunde kontratatzailearen aurrean.

Lan-baldintzak mantentzeko konpromisoak ez betetzea kontratuak suntsiarazteko arrazoia izango da. Konpromisoa betetzen ez duena azpikontratista bat bada, adjudikaziodunak, kontratazio-organoak eskatuta, azpikontratua suntsiaraziko du, adjudikaziodunarentzako inolako kalte-ordainik gabe.

Kontratistak subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabeko soldaten erantzukizuna izango du, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioena ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta langileak enpresa kontratista berri bati subrogatu, zeinak ez dituen inolaz ere betebehar horiek bere gain hartuko.

VII. KAPITULUA. KONTRATUA AZKENTZEA

32. klausula. *Harrera.*

Kontratistak, kontratuaren baldintzen arabera eta DEMAren nahierara, kontratuaren xede osoa bete duenean, kontratua betetzat joko da.

Kontratistak ezarritako epearen barruan entregatu beharko ditu egindako lanak edo eman beharko du zerbitzua. Kontratuaren arduradunak aurkeztutako dokumentazioa edo egindako prestazioa aztertuko du, eta harrera egitea proposatuko du.

Harrera edo adostasuna ekitaldi formal eta positibo batean adieraziko da, kontratuaren xedea betearazi eta hurrengo hilabetearen barruan, edo Baldintza Teknikoen Agirian kontratuaren ezaugarrien arabera ezartzen den epean.

Era berean, harrera partzialak egin ahal izango zaizkie modu independentean erabil daitezkeen kontratu zatiei. Segidako traktua duten kontratuen kasuan, kontratatutako prestazioa amaitzean edo kontratu-epea amaitzean egingo da harrera.

33. klausula. *Berme epea, ezereztea eta behin betiko bermea itzultzea.*

Berme epea jasotzen den egunetik hasiko da kontatzen, eta **1. klausularen 14. apartatuan** adierazitakoa izango da, edo, hala badagokio, adjudikaziodunak eskainitakoa.

Epe hori igaro eta DEMAk eragozpenik formalizatu ez badu, kontratistak ez du inolako erantzukizunik izango egindako prestazioagatik, eta behin betiko bermea itzuli edo ezereztu egingo da, halakorik eskatu bada.

34. klausula. *Kontratua suntsiaraztea.*

Nolanahi ere, prestazioa hasieran itundutako baldintzetan betearazteko ezintasuna suntsiarazteko arrazoia izango da kontratua aldatzea ezinezkoa denean, SPKLren 204. eta 205. artikuluen arabera, bai eta 211. artikuluaren i) letran jasotakoa ere.

Era berean, kontratazio-organoak **XI. eranskinean** funtsezko betebehartzat ezarritakoak izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak, eta zehaztasunez, argiro eta zalantzarik gabe agertu beharko dute.

35. klausula. *Konfidentzialtasuna.*

Alde batera utzi gabe informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoa eta adjudikazioaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLn jasotako xedapenak, erakunde kontratatzaileak ezin izango du zabaldu eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jo dituzten enpresek emandako informazioa. Konfidentzialtasuna, besteak beste, sekretu teknikoei edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziori eragiten die, lizitazio-prozedura honetan edo ondorengoetan.

Erakunde kontratatzailearen konfidentzialtasun-betebeharra ezin izango da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zuzenean edo zeharka sortzen dituen txosten eta dokumentazio osora ere, halakorik sortzen bada. Zabalkunde mugatua duten dokumentuetara bakarrik zabaldu ahal izango da, eta inola ere ez publikoki eskuragarri dauden dokumentuetara. Konfidentzialtasun-betebeharrak ezin izango du eragotzi, halaber, egindako kontratuen zati ez konfidentzialen zabalkunde publikoa, hala nola, hala badagokio, likidazioa, betearazteko azken epeak, zein enpresarekin kontratatu eta azpikontratatu den, eta, nolanahi ere, eskaintzaren funtsezko zatiak eta kontratuaren ondorengo aldaketak.

Kontratistak kontratua betearaztean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko du, baldin eta baldintza agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio, edo

bere izaeragatik halakotzat tratatu behar bada. Betebehar hori informazio horren berri izan eta bost urteko epean mantenduko da.

Lizitatzaileak eta/edo adjudikaziodunak konfidentzialtzat sailkatutako informazioari buruz ahalik eta zuhurtzia eta sekretu handiena gordetzeko konpromisoa hartzen du. Informazio konfidentzialtzat hartuko da lizitatzaileak eta/edo adjudikaziodunak eskaintza aurkeztearen edo, adjudikazioduna izanez gero, kontratua betearaztearen ondorioz eskuratzen duen edozein datu, bereziki kontratua betearazi bitartean eskuratu dituen entitate kontratatzailearen informazioa eta datuak. Lizitatzaileak eta/edo adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du informazio konfidentzial hori ez zabaltzeko, eta ez argitaratzeko, ez zuzenean, ez hirugarren pertsonen edo enpresen bidez, ez beste edozein modutan, hirugarrenen eskura jartzeko, erakunde kontratatzailearen aldez aurreko idatzizko baimenik gabe.

36. klausula. *Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.*

Kontratazio-organoak adjudikazio-prozeduran atzera egiten badu edo kontratu hau ez adjudikatzea edo ez egitea erabakitzen badu, hautagaiei edo lizitatzaileei jakinaraziko die.

Kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko erabakia formalizatu aurretik hartu ahal izango du kontratazio-organoak. Kasu horietan, lizitatzaileei ez zaie konpentsaziorik emango egin dituzten gastuengatik.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik bakarrik hartu ahal izango da kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia. Kasu horretan, ezin izango da bere xedearen beste lizitazio bat sustatu, erabakia oinarritzeko alegatutako arrazoiek irauten duten bitartean.

Prozeduran atzera egiten bada, adjudikazio-prozedura prestatzeko edo erregulatzeko arauetan zuzendu ezin den arau-hauste batean oinarritu beharko da. Atzera egiteak ez du eragotziko beste lizitazio-prozedura bat berehala hastea.

37. klausula. *Datuen babesa.*

Enpresa adjudikaziodunak, eskura ditzakeen datu pertsonalak dituzten tratamenduei dagokienez, konpromisoa hartzen du datuak babesteko arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa betetzeko:

a) Lortutako datu pertsonalak kontratuan agertzen ez diren helburuetarako ez aplikatzea edo erabiltzea, eta datu horiek beste pertsona batzuei ez lagatzea, ezta gordetzeko ere.

b) Haiekiko sekretu profesionala gordetzea, baita harremanak amaitu ondoren ere.

c) Datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko beharrezkoak diren segurtasun neurri teknikoak eta antolakuntzakoak hartzea.

Enpresa lizitatzaileen enplegatuen edo laguntzaileen datu pertsonalak, erakunde kontratatzaileari lehiaketaren lizitazioa dela eta ematen zaizkionak, lizitazio-prozedura kudeatzeko tratatuko ditu erakunde kontratatzaileak.

Enpresa lizitatzaileek ezin izango dizkiote datu horiek eman erakunde kontratatzaileari, aldez aurretik titularren baimena lortu eta klausula honen berri eman gabe.

Datu pertsonalen titularrek beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuen tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak ere, eta, hala dagokionean, beren datuen tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabakien xede ez izateko eskubidea ere, erakunde kontratatzailearen bulegoetara idatziz bidaliz eskaera, "Datu Pertsonalen Babesa" erreferentziarekin.

Barakaldo, 2026ko otsailaren 5a.

I. ERANSKINA. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA. SPKLren 100.2 art.

Kontratu honen lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, dela errentamendu/*renting* araubidean (PRINTZIPALA + INTERESAK) eskuratzeko, dela mantentze-lanetarako zehaztua, unitateko prezioen sistemaren bidez eta SPKLren 100. artikuluan xedatutakoaren arabera prestatu da, eta kontratuaren iraunaldia eta agiri teknikoan ezarritako aurreikuspenak kontuan hartuta kalkulatu da.

Hona hemen oinarrizko aurrekontua, banakatuta eta justifikatuta:

1.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA (BEZik gabe): 33.000 €

1.1.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZik gabe): 18.000 €

(60 hilabeterako errentamendu/*renting* araubideko kontratuaren zenbatekoa, agirian eskatutako ekipo guztiak sartuta)
Unitateko prezio bat zenbatetsi da (errentamendu/*renting* araubidearen interesak barne); hain zuzen ere:
Funtzio anitzeko 2 ekipo: 7.000 € unitate bakoitzeko
Zuri-beltzean inprimatzeko oinarrizko 4 ekipo: 500 € unitate bakoitzeko
Zuri-beltzean eta koloretan inprimatzeko oinarrizko 2 ekipo: 1.000 € unitate bakoitzeko

1.2.- MANTENTZE-ZERBITZUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZik gabe): 15.000 €

Mantentze-zerbitzuaren kostuei dagozkien zenbatekoak kopien bolumenaren arabera kalkulatu dira, proportzioan, kontsumoen arabera; hona hemen:

Kontzeptua	Urteko bolumena	Bolumena 60 hilabete	Prezioa/kopia	Prezio zenbatetsia 60 hilabete
Zuri-beltzeko kopiak.	100.000	500.000	**0,0060 €**	3.000 €
Koloretako kopiak.	40.000	200.000	**0,060** €	12.000 €
GUZTIRA				**15.000 €**

Zifra horiek lizitazio tipotzat edo oinarritzat hartzen dira, eta BEHERANTZ hobetu daitezke baloratzeko.

Eskaintzetan, ekipoak errentamendu/*renting* bidez erosteko prezioak bi hamartar izango ditu gehienez, eta unitateko prezioak (kopia bakoitzeko) lau hamartar, gehienez; gainerakoa moztu egingo da.

Kopia kopurua gutxi gorabehera finkatu da, aldakorra da erakundearen benetako beharren arabera, eta ez du inolako konpromisorik hartzen erakunde adjudikaziodunarekin.

2. KONTRATUAN AURREIKUSITAKO ALDAKETAK

1. klausularen 18. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, kontratua aldatu egingo dela aurreikusten da. Aldaketa hau justifikatzen duen arrazoia kontratuaren iraupena bera da: **epe luzea du (5 urte)**. Nagusiki honako aldaketa hauek gerta daitezke:

1) Langile kopurua handitzea eta, horren ondorioz, inprimatzeko ekipo gehiago behar izatea.
2) Erakundearen jarduera nagusia (enpleguko eta ekintzailetzako programak) areagotzea eta, horren ondorioz, gune/gela berriak hornitu behar izatea.

Kontratuaren aurreikusitako aldaketa babesten duen zenbatespen zehatza SPKLn jasotako ehunekoetan egin da, hau da, inprimatzeko beste 4 ekipo, gehienez ere, eta 3.000 kopiara arteko kontsumoak.

II. ERANSKINA. PARTE HARTZEKO ESKAERA-EREDUA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

_____ jaunak/andreak (NAN zk.:_____, eta helbidea:_____), bere izenean / _____ enpresaren (helbidea: _____; eta IFK: _____) ordezkaritzan jardunez honako hauen hornidurako kontratu mistorako:

1.- ERRENTAMENDU/*RENTING* ARAUBIDEAN:

- Funtzio anitzeko 2 ekipo **(fotokopiagailua–inprimagailua–eskanerra)**, zuri-beltzean eta koloretan.
- Zuri-beltzean inprimatzeko 4 ekipo indibidual.
- Zuri-beltzean eta koloretan inprimatzeko 2 ekipo indibidual.

*2.- **MANTENTZE-ZERBITZUA**, kontsumoen arabera; laguntza teknikoa eta kontsumigarrien eta ordezko piezen hornidura barne*

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

1. Eskaintza egiterakoan, kontuan hartu dituela enplegua babesteari, lan-baldintzei, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruz indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak.
2. Lizitazioaren baldintzak onartzen dituela, eta lizitazioan parte hartu nahi duela. Horretarako, parte hartzeko eskaera hau aurkezten du, baldintza agirietan adierazitako dokumentazioarekin batera.
3. Agiri honetan nortasunari, gaitasun orokorrari eta partikularrari buruz eskatutako baldintzak betetzen dituela, eta eskatzen zaizkion egiaztagiriak aurkezteko konpromisoa hartzen duela.
4. Sinatzaileak eskaintza egiteko ordezkaritza ahalmen nahikoa baduela.
5. Ez duela kontratatzeko debekurik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan jasotakoetatik.
6. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
7. Enpresak kontratuaren xede diren prestazioak egiteko eska daitekeen enpresa edo lanbide gaikuntza duela.
8. Eskatutako kaudimen ekonomiko eta teknikoa duela, edo, hala badagokio, dagokion sailkapena.
9. Erakundea Sektore Publikoko Enpresa Lizitatzaile eta Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo autonomia-erkidegoko erregistro ofizial baliokidean inskribatuta dagoela, eta haren datuak indarrean daudela hau sinatzen den egunean, edo, gutxienez, inskribatzeko eskaera egin duela, dokumentazioa aurkeztu dela eta zuzentzeko eskakizunik ez dela jaso.
10. Erakundeak beste erakunde batzuen gaitasunetara joko duela (adierazi dagokiona):
    - ☐ BAI.
    - ☐ EZ.
11. Kontratazioaren xede den jardueran aritzeko behar diren baimenak dituela.

12. SPKLren 75.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, aurreko apartatuan baiezkoa emanez gero, behar diren baliabideak jarriko dituztela frogatzen duen konpromiso idatzia aurkeztu beharko dute erakundeek.

13. Atzerriko enpresa bat izanez gero: edozein mailatako Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diola.

    Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresen kasu zehatzean: adierazpen honekin batera honako dokumentazio hau aurkezten da, Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 12. klausulako 5. apartatuan adierazitako edukiarekin:

    - Jarduteko gaitasuna egiaztatzen duen txostena, enpresaren egoitzako Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emana.
    - SPKLren 68. artikuluan aipatzen den elkarrekikotasun txostena.

14. Aldi baterako enpresa elkartea izanez gero: adierazpen honekin batera doa aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa.

15. Deklarazio honen bigarren apartatuan aipatzen diren dokumentuen edukitza eta baliozkotasuna egiaztatzeko konpromisoa hartzen duela, horretarako eskatzen zaion edozein unetan.

16. Lizitazioari buruzko jakinarazpenak jasotzeko helbide elektroniko hau aipatzen du:

_____ @ _____.

Eta horrela jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

_____(e)n, 20_(e)ko _____ren ____[(e)a]n.

Sin.: _____.

III. ERANSKINA. ENPRESA-TALDEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.

..... jauna/andrea (NAN zk.: .....), bere izenean /..... enpresaren ordezkari gisa jardunez, ... (adierazi dagokiona) den aldetik, errentamendu/*renting* bidez honako hauez hornitzeko DEMAk deitu duen kontratu mistoaren lizitazioan parte hartu ahal izateko:

1.- ERRENTAMENDU/*RENTING* ARAUBIDEAN:

- Funtzio anitzeko 2 ekipo **(fotokopiagailua–inprimagailua–eskanerra)**, zuri-beltzean eta koloretan.
- Zuri-beltzean inprimatzeko 4 ekipo indibidual.
- Zuri-beltzean eta koloretan inprimatzeko 2 ekipo indibidual.

*2.- **MANTENTZE-ZERBITZUA**, kontsumoen arabera; laguntza teknikoa eta kontsumigarrien eta ordezko piezen hornidura barne*

honako hau adierazten du bere erantzukizunpean:

…….. (adierazi dagokiona) enpresa

☐ ez da inongo enpresa-taldetakoa.

☐ enpresa-talde honetako kide dela:
.....

Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren arabera lotutako enpresen zerrenda erantsi da.

_____(e)n, 20_(e)ko _____ren __[(e)a]n.

Sin.: _____.

IV. ERANSKINA. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA ETA GAITASUN TEKNIKO EDO PROFESIONALA.

Ezin da eskatu, SPKLren 159.6.b) artikuluan adierazitakoaren arabera.

V. ERANSKINA. KONTRATUARI BALIABIDEAK NAHITAEZ ATXIKITZEA (SPKLren 76.2 art.)

Ez da eskatzen.

VI. ERANSKINA. AZPIKONTRATAZIOA eta/edo LAGAPENA.

- **Azpikontratazioa:** Ez dago baimenduta.

- **Lagapena:** Ez dago baimenduta.

VII. ERANSKINA. ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA (Unitateko prezioak).

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ zk.: .....), bere izenean edo ..... enpresaren ordezkari gisa jardunez, ... den aldetik, honako hauen hornidurako kontratu mistoa adjudikatzeko eskatzen diren baldintzen eta betekizunen jakitun:

1.- ERRENTAMENDU/*RENTING* ARAUBIDEAN:

- Funtzio anitzeko 2 ekipo **(fotokopiagailua–inprimagailua–eskanerra)**, zuri-beltzean eta koloretan.
- Zuri-beltzean inprimatzeko 4 ekipo indibidual.
- Zuri-beltzean eta koloretan inprimatzeko 2 ekipo indibidual.

*2.- **MANTENTZE-ZERBITZUA**, kontsumoen arabera; laguntza teknikoa eta kontsumigarrien eta ordezko piezen hornidura barne*

konpromisoa hartzen du betearazpena bere kargura hartzeko, aipatutako betekizun eta baldintzei zorrotz lotuta, prezio hauetan:

Lizitatzaileak adierazi du aurkeztutako eskaintza honela banakatu dela:

	UNITATEKO PREZIOA	**UNITATEAK GUZTIRA**	**GUZTIRA**
*Errentamendu/*renting*aren zenbatekoa (BEZik gabe).*	*……€/hilabete*	*……..……..€ 60 hilabete*	
Zuri-beltzeko kopiaren unitateko prezioa (BEZik gabe).	*... ..... €/kopia Gehienez 0,0060 €/kopia*	*Aurreikuspena: 500.000 kopia*	
Koloretako kopiaren unitateko prezioa (BEZik gabe).	*... ..... €/kopia Gehienez 0,060 €/kopia*	*Aurreikuspena: 200.000 kopia*	
		GUZTIRA	

Kontratuaren eskaintza (**BEZik gabe**) honako hau da, guztira:

ZENBATEKOA LETRAZ	…… ..... euro.
ZENBATEKOA ZIFRATAN	…….. €.

Ekipoak errentamendu/*renting* bidez eskuratzeko prezioak bi hamartar baino ez ditu izango, eta kopien unitateko prezioek, aldiz, lau hamartar gehienez, eta gainerakoa moztu egingo da.

Lizitatzaileak, eskaintza hau aurkeztuz, **erantzukizunez adierazten du**:

- Hornitu beharreko ekipoek Baldintza Teknikoen Agirian eta aplikatu beharreko legezko araudian ezarritako gutxieneko ezaugarri teknikoak betetzen dituztela.
- Hornitu beharreko ekipoak erosi berriak direla eta ez dutela osagai berreraikirik.
- Hornitu beharreko ekipoak ez direla EOL (End of Life) deklaratutako edo deskatalogatutako elementuak.

Erantsi beharreko dokumentazioa:
Informazio-liburuxkak eta/edo eskainitako ekipoen ezaugarrien zerrenda zehatza jasotzen duten fitxa teknikoak aurkeztu beharko dira, kontratazio-mahaiak aukera izan dezan eskaintzak Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

_____(e)n, 20_(e)ko _____ren __[(e)a]n.

Sin.: _____.

VIII. ERANSKINA. ONDOREN EBALUATU BEHARREKO ADJUDIKAZIO-IRIZPIDE OBJEKTIBOAK.

Aurkeztutako proposamenak baloratzeko, adjudikazio-irizpide hauek hartuko dira kontuan, guztiak formulen bidez ebaluatu daitezkeenak, automatikoki:

ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEA		**GEHIENEKO PUNTUAZIOA: 100 PUNTU**
1	**Eskaintza ekonomikoa.**	**100 puntu.**
	1.1 Eskaintza ekonomikoa: ekipoen renting *kontratuaren prezioa, 60 hilabetera guztira.*	*60 puntu, gehienez.*
	1.2 Eskaintza ekonomikoa: zuri-beltzeko kopiaren unitateko kostuaren prezioa.	*20 puntu, gehienez.*
	1.3 Eskaintza ekonomikoa: koloretako kopiaren unitateko kostuaren prezioa.	*20 puntu, gehienez.*

1. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK HAZTATZEKO FORMULA.

1.1. irizpidea: Eskaintza ekonomikoa: ekipoen errentamendu/*renting* prezioa. 60 puntu, gehienez.

60 punturekin baloratuko da gehieneko beherapena (eskaintza ekonomiko baxuena, ausarkeriazko beherapenean egon gabe) eta gainerakoa proportzionalki, formula honen arabera:

Puntuazioa = 60 x (prezio merkeena / enpresa lizitatzailearen prezioa)

1.2. irizpidea: Eskaintza ekonomikoa: zuri-beltzeko kopiaren unitateko kostuaren prezioa. 20 puntu, gehienez.

20 punturekin baloratuko da gehieneko beherapena (eskaintza ekonomiko baxuena, ausarkeriazko beherapenean egon gabe) eta gainerakoa proportzionalki, formula honen arabera:

Puntuazioa = 20 x (prezio merkeena / enpresa lizitatzailearen prezioa)

1.3. irizpidea: Eskaintza ekonomikoa: koloretako kopiaren unitateko kostuaren prezioa. 20 puntu, gehienez.

20 punturekin baloratuko da gehieneko beherapena (eskaintza ekonomiko baxuena, ausarkeriazko beherapenean egon gabe) eta gainerakoa proportzionalki, formula honen arabera:

Puntuazioa = 20 x (prezio merkeena / enpresa lizitatzailearen prezioa)

PUNTUAZIOA GUZTIRA: 100 puntu.

2. ESKAINTZA NABARMENKI BAXUA DELA ZEHAZTEKO PARAMETROAK.

Hasiera batean behintzat, <u>nabarmentzat joko dira</u> honako kasu hauetan dauden eskaintzak:

1. Enpresa lizitatzailea bakarra izanik (aurrerantzean, lizitatzailea), lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 ehuneko unitate baino txikiagoa denean.
2. Bi enpresa lizitatzaile lehiatzen direnean, beste eskaintza baino 20 ehuneko unitate baino gutxiago eskaintzen duena.
3. Hiru lizitatzaile egonda, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino txikiagoak direnak ehuneko 10 unitatetan gutxienez. Hala ere, batez besteko hori kalkulatzeko eskaintzarik handiena ez da kontuan hartuko, baldin eta batez besteko hori baino handiagoa bada, ehuneko 10 unitatetik gora. Nolanahi ere, ehuneko 25 unitatetik gorako baxuena neurriz kanpokotzat joko da.
4. Lau lizitatzaile edo gehiago egonda, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino txikiagoak direnak 10 ehuneko unitatetan gutxienez. Hala ere, horien artean batez besteko hori baino handiagoak diren eskaintzak (ehuneko 10 unitatetik gorakoak) baldin badaude, beste batez besteko bat kalkulatuko da, adierazitako kasu horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batezbesteko berria kalkulatuko da zenbateko txikieneko hiru eskaintzak erabilita.

Kasu horretan, SPKLren 149. artikuluan aurreikusitako izapidetzea egingo da, ausarkeriaz baja eman aurretik.

3. AZKEN PUNTUAZIOAN BERDINKETAK EBAZTEKO IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK:

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, SPKLren 147.2 artikuluan berdinketa hausteko ezarritako araubidea aplikatuko da.

SPKLren 147.2 artikuluaren arabera, honako irizpide sozial hauek aplikatuz ebatziko da berdinketa eta, betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko unea kontuan hartuta eta hurrenkera honetan aplikatuz:

a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan desgaitasuna duten langile gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.

b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.

c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.

d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatziez bada.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko apartatu honetan aipatzen den dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzaileek, eta ez aldez aurretik.

Lizitatzaileek 5 egun balioduneko epea izango dute horiek aurkezteko.

IX. ERANSKINA. KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratua betearazteko baldintza bereziak, SPKLren 202. artikuluaren arabera.

Ingurumen-baldintzak

- Adjudikaziodunak ingurumen-arloko kudeaketako eta ikuskaritzako sistema bat duela egiaztatu beharko du.

  Dokumentazioa: Dagokion ziurtagiria aurkeztuz egiaztatuko da: Europar Batasuneko ingurumen kudeaketa eta auditoretza sisteman (EMAS) izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, ISO 14001 ziurtagiria edo beste edozein ziurtagiri normalizatu.

Bestelako baldintzak

Adjudikaziodunak egiaztatu beharko du Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistemen ziurtagiria duela, datuen eta informazioaren segurtasuna, konfidentzialtasuna eta osotasuna egiaztatzen dituena, baita informazioa prozesatzen duten sistemena ere.

Dokumentazioa: Dagokion ziurtagiria aurkeztuz egiaztatuko da: ISO 27001 ziurtagiria edo beste edozein ziurtagiri normalizatu baliokide.

Horiek ez betetzeak izaera hau izango du:

- Arau-hauste astuna, zigorrak ezartzeari dagokionez (**X. eranskina**).

Kontratua betearazteko baldintza bereziak, hala badagokio, kontratua betearazten parte hartzen duten azpikontratista guztiei eskatuko zaizkie.

X. ERANSKINA. ZIGORRAK.

ZIGORREN AUKERAKO ARAUBIDEA

- **Erakunde kontratatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik epeak ez betetzeagatiko zigorrak.**
  Dagokion urteko kontratuaren prezioaren % 5.

- **Prestazioa behar ez bezala betetzea.**
  Dagokion urteko kontratuaren prezioaren % 10.

- **Kontratua betearazteko baldintza bereziak ez betetzea.**
  Kontratuaren prezioaren % 5.

XI. ERANSKINA. KONTRATUAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK.

Kontratuaren funtsezko betebehartzat hartzen dira:

- Baliabideak atxikitzeko konpromisoa (SPKLren 76.2 artikulua) (eska badaiteke).
- Eskaintzak adjudikatzeko irizpideak (SPKLren 122.3 artikulua).

XII. ERANSKINA. KONTRATAZIO-MAHAIAREN OSAERA.

Presidentea: Isabel Muela López, DEMAko zuzendariorde kudeatzailea.

Idazkaria: Beatriz Morcillo Niembro, DEMAko Zerbitzu Orokorretako zuzendaria.

Bokala: Beatriz Alejos Garmendia, DEMAko Finantza eta Programen zuzendaria